


Astekaria

BARENEN

elgoi



IRAKURKETA ETA TELEBISTA
AURREZ AURRE



kutxa fundazioa

gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza

PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Abulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak	742950
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 27 00
L.H.I.	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

3 LAU HANKATAN

"Baina akaso, bakardadearen adibiderik gordinena, Sallobenteko pintorearena da". **Hasier Etxeberria**

6 ERREPORTAIA: EMAKUME HELDUEK BADUTE LANERA BUELTATZEKO AUKERA

45 emakumek, profesionalki hezitzeko aukera izan dute Lanbide Hezikaterako Institutuak antolatu dituen hiru ikastarori esker. Hainbat kontu dakarzkigu atal honetan.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: DENBORA LIBRERAKO, TELEBISTA ALA LIBURUA?

Kontxi Gomez

"Etxera sartu eta egiten dudan lehen gauza, telebista piztea da. Ohi-tura besterik ez dela esan liteke, baina ez da hori bakarrik."

Manuel Nova

"Uste dut, aisialdia norberak dauzkan gustu eta zaletasunez aprobetxa daitekeela, baina dudarik gabe, liburuak lehen postua behar luke izan".

12 BERBETAN

"Gazteagoa nintzenean sagarrak lapurtzen nituen zuhaitzetatik".

Don Alfonso.

14 KIROLA:

GAIA: URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA.

ELKARRIZKETA: **Urko Lizarralde: "Rugbya ez da arriskutsua".**

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

Herri-Gain izan zen Urasandiko jaien bultzatzailea

17 KULTURA

Sallobente ermitako lanak geldituta daude momentuz.

KOMIKIA



elgoiBARREN

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkarte
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldeg

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Edurne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatearen diseinua
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Agur Miren
Barandiaran, Lorea
Gorostiaga, Jon Eugi,
Hasier Etxeberria, Maite
Iriondo, KOKOE, Aitor
Lodoso, German
Meabebasterretxea, Susana
Mugika, Jasone Osoro,
Diana Perez de Albeniz,
Lorea Perez de Albeniz,
Andoni Rementeria,
Eduardo Sanz, Aitor
Zabaleta.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza z/g
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.025/92

elgoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Hasier Etxeberria

Sallobenteko pintorea

Bakardadea ez da ez txarra eta ez ona.

Hobeto esanda, txarra eta ona, biak

batera, da. Pentsatzen jarrita, batez ere ezerosoa, inkomodoa, da. Ez da batere praktikoa gaur egunean.

Bakardadea ez du bakarrik egoteak ekartzen. Konplikatuzeagoa da. Egon zaitzke edonon, edonola, edonorekin, baina bat batean bakardade atake batek harrapatzen zaitu gripe txar batek bezala eta akabo, bakardade bakartiaren atzamarpean zaude, batere erremediorik gabe. DYAr deituta ere ez da asuntua konpontzen.

Nik badaukat lagun bat, zenbat eta jende gehiago inguruan, orduan eta bakarrikago sentitzen dena. Gorroto ditu jai egun jendetsuak, azoka ugariak. Zinera joateko, jenderik gutxien dagoen eguna aukeratzen du koitxauak, zein pelikula jartzen duten karteldegian begiratu ere egiteke.

Oso urrutira joan gabe, nere lehengusina bat, bere maitea hurbiltzen zaionean, bakarrikago sentitzen da bera bakar bakarrik dagoenenan baino. Bakarrik dagoenetan, ez du ezer neurtu beharrik izaten. Zela edo hala, bera hor dago, bakardadean. Maitea hurbiltzen denean, oster, tarte, distantzia, urruntasuna, bestea, ni-eza, ulertzina eta antzerako kontzeptuak agertzen dira. Bestearen pisua eta neurria agertzen dira horizontean, ostertzean. Elkar ulertu ezinak azpimarratu egiten du soledadea.

Gainera, Grezia zaharretik hasita, filioso guztiak datoz bat: bakarrik sortu

omen gara mundura, bakarrik joango omen gara Olasora. Bakardadea omen da estadu naturala.

Hala ere, hemen ez du inortxok ere bakarrik egon nahi. Nik bai, eta zuk ere bai, denok, asasinatu nahi dugu bakardadea. Beste erremediorik euki ez zuelako izan zen bakartia Van Gogh. Itsasoan galdu zelako egon zen bakarrik Job. Gernikako Arbola ere bere desioen kontra dago bakarrik. Nahiago luke harizti baten barruan bizi. Alboko anaiarriben itzalaz gozatu.

Baina akaso, bakardadearen adibiderik gordinena, Sallobenteko pintorearena da. Artelan ederrez hornitu zituen elizako paretak. Diseinu bakarrak, ederrak, zinetikoak, aurrerakoiak, abstraktoak, geometrikoak, izugarriak egin zituen. Seguru asko bere bizitza guztian egin zituen garrantzizkoenak.

Hala ere, urteak joan eta etorri, igel-tseroek eta beste margolari batzuek estali zituzten koloreak, bere forma eta irudiak. Orain, aurkitu ditugunean, egunkari guztietan agertu dira. Artelekun itxuraberritzen ari omen dira izugarritzko dirutza eta lanarekin. Gipuzkoako zaharrenak ei dira, kobazuloetako margoak kenduta.

Baina inork ez du hitzegiten pinturaren benetako balioaz. Pintorearen ahalegina eta abilezia. Zaharra izatea da bere garrantziaren aitzakia, ez, ederra izatea. Ez, abstraktoa izatea. Ez, koloreen hautaketa. Ez, egiteko modua. Ez, funtzioa. Ez, beste ezer. Zaharra izatea da guztiek aipatu duten merito bakarra.

Guri begira badago, oso bakarrik aurkituko da Sallobenteko pintorea, halako fama hartu duen honetan.

AZPELETA

elektrizitatea

San Frantzisko 51, behea. Tel: 74 12 38

NORBERTO ZABALA

PINTURAK

Errosario 32. Tel: 74 08 45.

ELGOIBAR

Zer dela eta?

Pasa den larunbatean, hilak 20an, oso gauza kurioso eta lotsagarria gertatu zitzaidan. Elgoibarko Lanbroa tabernan gertatu zen. Iluntzeko zortzirak izango ziren gutxigorabehera, zortzi t'erdia beharbada. Ni eta nire laguna Lanbroara sartu ginen trago bat hartzeko asmotan baina sartu orduko kanpoan ginen.

Ohitura dugun bezala, kalera ematen duen atetik sartu eta barrukalderantz gindoazenean, bi ertzain agertu ziren; hauek kanporantz zihoazen. Bapatean, ertzainetariko bat aurrean jarri zitzaidan eta berarekin kanpora irteteko eskatu zidan. Nik ez nekien zer gertatzen zen eta hor joan nintzen kanporantz.

Kanpoan, bakarra ez nintzela konturatu nintzen. Gazte pilo batek

osaten genuen talde bat ginen eta, oso oker ez banago, ni nintzen nagusia. Ez nuen ezer ulertzen; nik zer egiten nuen han? bertan, zenbat urte nituen galdegin zidan ertzainak eta hemeretzi nituela esatean karneta eskatu zidan. Guzti hau, noski, gazteleraz. Ez al dira ba, Euskal Herriko zaintzaileak? Delitu bat ote da asko ez neurtzea?

karneta erakutsi eta dena ongi zegoela ikustean joan nintekeela esan zidan. Ze eskubide dute tabernatik horrela aterazteko?

Argi utzi zuten ez zela alkoholaren aurkako ezer izan, nik behintzat, ez bainuen ezer eskuetan eta oker ez banago, nire alboan zeuden mutikoak makinetan jolasten ari ziren. Delitua ote da taberna batetara sartzea? Karneta soinean genuen

begiratzeko izan ote zen? Norbaitek azal diezadala, mesedez, zertarako egin zuten hori, nik neuk behintzat ez baitakit.

Ez ote zen, beharbada, jendea probokatzeko izango? Nik ez dut beste arrazoirik ikusten.

Noiztik dago debekata taberna batetara sartzea? Ekintza horrek zentzu piska bat edukiko zukeen eskuetan zurito edo alkoholun edariren bat izan banu, baina non arraio daude gure eskubideak? Nortzuk uste dute direla jendea horrela tratatzeko eta tabernatik aterazteko?

Beti bezala, probokatzaille batzuk besterik ez direla argi eta garbi utzi zuten. "Bronka" hasteko asmotan egin bazuten, ekintza oso gaizki irten zitzaien. Lortu zutena, ordea, Elgoibarko neska hau iraindua sentiaraztea

izan zen.

Zer gertatuko ote datorren astebukaeran?

I.O.

OHARRA:

Atal hau zuen esku-titzen zain dago. **Eskutitzak ez dira orrialde erdi makinaz baino luzeagoak izan behar**

Eskutitzek idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan behar dute. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inzialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzentzat.

JU A R I S T I

ARROZTEGIA

- ETXEBIZITZETAKO ERREFORMAK
- LEIHO ISOLATZAILEEN FABRIKAZIOA

ETA INSTALAKUNTZA

Fixo edo oszilakorrak, Egurrezko nahiz mistoak (Aluminio eta egurrez edo brontze eta egurrez).

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

BULEGOA:
Ubitarte 2 behea.
Tel 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana 16.
Tel. 74/29 94



24 orduz zuekin

Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

Emakume helduek badute lanera bueltatzeko aukera

Emakume asko dira arrazoi ezberdinengatik, gazteago zirenean lana utzi eta, orain, zenbait urte beranduago, lan mundura bueltatu nahi izan eta erreziklaia ezaren arazoarekin topo egin dutenak. 45 emakumek, profesionalki hezitzeko aukera izan dute Lanbide Heziketarako Institutuak antolatu dituen hiru ikastarori esker. Administrarritza, 3. adinekoen zainketa eta merkataritza izan dira landu dituzten arlo profesionalak.



➔ Merkataritza ikastaroan aritu den emakume taldea.

Duela bi urte hasi ziren Lanbide Heziketarako Institutuan emakumeentzako ikastaroak ematen. Lehenengo urtean ikastaro bat bakarrik eman zuten eta esperientzia benetan polita eta positiboa zela ikusita, aurrean hiru ikastaro ezberdin ematera animatu dira. Administrarritza eta 3. adinekoen zainketari buruzko ikastaroak abenduan amaitu ziren eta aste

honetan merkataritza ikastaroa bukatu berri da. Aldundiak eta Lanbide Heziketarako Institutuak titulu bat emango die ikastaroa egin dutenei, eta titulu ofiziala ez izan arren, baliagarria izan dakieke lan mundurako.

Ikastaro bakoitzean 15 emakumek izan du birziklatzeko aukera eta ikastaro hauetara etortzeagatik 75.000 pezetako dirulaguntza jaso du bako-

tzak.

Ikastaro hauek 25 eta 45 urte bitarteko emakumei daude zuzenduak eta gutxienez 6 hilabetez lan egin izatea eta INEMen bi urtez egotea eskatu zaie.

Lan munduarekin lehen kontaktua izan baino lehen, praktikak egiteko aukera ematen zaie. Adibidez, 3. adineko zainketari buruzko ikastaroetan aritu diren emaku-

meak Elgoibar, Eibar eta Mutrikuko Zaharren Egoitzetan ibili dira praktiketan. Administrarritza-koak bulegoetan eta merkataritzakoak Eroski eta horrelako dendatan.

Ikastaroen arrakasta ikusita, datorren udaberri-rako beste hiru ikastaro antolatzeko asmoa dute: administrarritza, salmenta teknikak eta dekorazioari buruzkoak.



Mari Asun Larrañaga
Ikastaroen arduraduna

“Emakumeak oraindik lan mundura itzultzeko aukera duela erakustea izan da helb urua eta funtsezkoena beraian motibazio hori sortzea izan da. Harrituta gaude ikastaroei izan duten arrakasta eta harrera ona dela eta”.



Mari Jose Garmendia
Lan Tekniken irakaslea

“Emakumeen autoestima oso baxua zela ikusi nuen. Errefortzu intelektuala ematetik hasi ginen. Emakumeek beraiek egin dituzten aurrerapenak ikusi dituzte eta azkeneko erraztasun handia hartu dute gauza askotan”.

Maria Jesus Leiaristi
(3. adinekoen zainketa-ko ikaslea)

“Pertsona nagusiei laguntza nola eskaini ikasi dugu, eta ikasi doguna oso positiboa dela uste dot. Oso gustora ibili gara. Zaharren Egoitzan praktikak egiten egon ginenean, zer lan zeukaten han ikusi genuen, jaten eman, gela jasotzen lagundu, zaharrei kaso egin...Gero lanak irtengo balu...

Ikastaroetan oso gustora egon gara. Hasieran, matematikak direla, lengoajea dela, nahiko gogorra egiten da. Nere garaian beste modu batera ikasten genuen eta dena asko aldatu dela ikusi det. Dena den, beste ikastaro bat egingo balitz, berriro apuntatuko nintzateke eta Elgoibarko emakume guztiei animatu daitezten esan nahi diet”.



Maria Victoria Liz
(Merkataritza ikaslea)

“Gauza asko ikasi dut, eta horrezaz gain, oso garantzitsua izan da niretzat lagun mordoa egin izatea. Zer ikasi dudan ikastaroan? Mostradore atzean nola egon, eskapareak nola apaindu, eskulanak egin... Ordenagailua ere erabili dugu eta denetarik ikasten da. Matematikak, informatika... denetarik. Hemen ikasi dudana praktikan jarri nahiko nuke orain, baina gauzak daudden bezala egonda oso zaila dela iruditzen zait.

Ikastaro hauekin aspal-di batean ikasi genuena errekuperatu dugu eta ikasle gineneko garaira bueltatu gara. Oso pozik nago merkataritza ikastaroan ikasi dudanarekin”.



➔ Eskapareak nola atondu ikasi dute besteak beste.

Arantza Uriarte
(Administrarritza ikaslea)

“13-14 urte nituenean ikasketak bukatu nituen. Gero bulego batean lan egin nuen, baina ezkondu nintzenean utzi eta ordutik hona ez dut ezer egin. Denetarik ikasi dut, ordenadorea nola erabili, kontabilitatea... Nik lehenago ere emanda nuen kontabilitatea baina maila oso baxua izango zen, ze orain ikasi dudanak ez baitu harekin zerikusirik.



Lan munduan sartzeko prest gaude. Bulego batean lan egiteko kapaz sentitzen naiz. Orain lehen baino aukera gehiago dudala uste dut”



Oraiko
kafetegia

BERISTAIN
EDARI BANATZAILEA

- Coca Cola
- Altolako Ura
- Codorniu
- Lopez Ojeda ardoa

☎ 74 38 27

GARRONO
dekorazioa

San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

Denbora librerako, telebista ala liburua?

Nire denbora libreari buruz hainbat hausnarketa egin ondoren, ondorio hauetara iritsi naiz: Etxera sartu eta egiten dudan lehen gauza, telebista piztea da. Ohitura besterik ez dela esan liteke, baina ez da hori bakarrik.



Jaio nintzenetik ezagutu dut aparailu hori etxean eta askotan familiaren parte garrantzitsua ere izan da.

Badakit irakurle porrokatu horien iritiz, aparailu hori dela gaurko gizarteak dituen problema askoren erantzule, baina nik oso bestela pentsatzen dut.

Telebistako programa asko, oso arin eta azalekoak dira, baina denok dakigu gehiegikeria guztiak ez direla onak eta horregatik, hain zuzen ere, ezin ditugu telebistako programa guztiak zaku berean sartu.

Ez al ditugu bada, programa onak, zeintzutatik gauza asko ikas dezakegun?

Luzera jo gabe, hor daukagu gure telebistaren 10. urteurrena. Uste dut, kontutan izan behar dugula zenbat kostatu zitzaien berori lortzea eta, gehiegi esatea ez bad, onenetako bat dela esango nuke.

Aisialdia ondo aprobetxatu behar dela esaten da eta nere ustez telebista era oso aproposa da; izan ere, dibertitzeaz gain,

munduan gertatzen denaren berri ematen digu. Ez da, beharbada, modurik egokiena izan, dena den, eguneko lanaldiaren ondoren, inor gutxik dauka burua gehiegi nekatzeko gogoia eta telebistako programa on baten aurrean jartzeak mesede handia egiten digu askotan.

Bestalde, koherentea izango naiz eta ezin izango dut liburuen aurka nagoela esan. Pertsona askorentzat, liburua telebista bezain lagungarria izan ohi da, eta haientzat beti ere, aldean eraman daitekeen laguna izango da.

Telebistaren bitartez gure laguntza eskatzen duten erakunde edo pertsonekin jar zaitezke harremanetan eta zailagoa izan arren lehiaketetako batean parte har zenezake, diru apur bat irabazi ahal izateko.

Aisialdirako telebista zergatik aukeratzen dudan azaldu dizuet; halere, nire iritziekin bat ez datozenek, nire errespetu guztia daukate.

Kontxi Gomez
(Erredakzioan itzulia)



Ikasi nahi dugula? Egunera egon nahi dugula... Guzti hau liburuek eskeintzen digute. Esperientzia eta ezagupen interesgarriak idatzi izan dira eta idazten dira etengabe liburuetan.

Kulturari irakurriaren bidetik eutsi! Liburua noiznahi hasi eta utzi ahal duzu, berriro ere, denbora daukazunean irakurtzeari ekiteko. Liburu batek aukera hori ematen dizu, gainera. Liburua ZUK aukeratzen duzu.

Liburu asko dago: historia, poesia, nobela, zientzia... telebista edo irratsaioak baino gehiago eta filmeak, diskak eta bideoak baino gehiago.

Herrietako kultura liburuetan jasotzen da eta beti daukagu hauetatik zerbait ikasteko.

Zeinen atsegina den, liburu bat irakurtzea parke batetako jarleku batean, plaza batean, nobela bat autobusean, aldizkari bat ohean edo egunkaria etxeko komunean.

Hasera batean kosta egiten zaigu irakurtzea, baina ohitura hartzen dugun neurrian, beti aurkituko

dugu gustoko dugun gairen bat eta behin hau gertatuz gero, gure irudimena zabalduz joango da eta irudimena ezezik, irakurlearen hiztegia eta ezagupena ere aberastu egiten da.

Liburu bat mila eskutatik pasa daiteke haren mamiaren interresa galdu gabe eta liburu on baten kasuan berrirakurketa egitea ere gomendagarria izaten da, gizarteko aldaketak kontutan izanik beste zentzu bat ere aurkitu ahal diogulako.

Uste dut, aisialdia norberak dauzkan gustu eta zaletasunez aprobetxa daitekeela, baina dudarik gabe, liburuak lehen postua behar luke izan. Telebistak dena egina ematen dizu eta pentsatzea eragozten dizu sarriaskotan.

Manuel Nova
(Erredakzioan itzulia)

Denbora librerako, telebista ala liburua?



Juani Bergara
20 urte, umezaina

Irakurtzea telebista ikustea baino gehiago gustatzen zait. Baina telebistari begira ere egoten naiz. Irakurketa interesgarriagoa da, telebista "komekokos" bat da baztutan.



Pili Alonso
45 urte, etxeakoandrea

Telebista entretenigarria da eta informatiboak eta pelikulak gustatzen zaizkit. Garai batean asko irakurtzen nuen. Orain oporretan irakurtzen ditut liburuak.



Matilde del Campo
31 urte, langabetua

Telebista ikusi eta liburuak irakurtzen ditut. Liburuak edukatiboagoak dira baina telebista oso interesgarria da. Gauza biak neurri egokian egin behar dira.



Roman Igartua
54 urte, jubilatua

Euskal telebistako programa kulturalak gustatzen zaizkit eta albistegiak ere bai. Liburuak ere asko irakurtzen ditut, euskal etnografia eta gertaera historikoei buruzkoak.



Enrike Gabilondo
35 urte, ajustatzailea

Telebista ikustea gustatzen jata. Liburuak oso gutxi irakurtzen ditut. Euskal telebistako zein beste telebistakoko parteak ikusten ditut.



Rafael Feijoo
20 urte, langabetua

Pelikula piloak ikusten dut. "Canal Plus"era abonatu naiz pelikulak ikustearren. Liburuak, onak eta irakurterrezak badira irakurtzen ditut.

EIBAR

OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia | 9- Ortodontzia |
| 2- Kardiologia | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia | 11- Pediatria |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria |
| 5- Dermatologia | 13- Radiologia |
| 6- Ginekologia | 14- Traumatologia |
| 7- Laborategia | 15- Urologia |
| 8- Barne medizina | |

Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

**I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A**

FADEK
SOLARIUM

Erosario Kalea, 35 behe
☎ 74 26 92 Elgoibar

Epai ketaren zain dago Rafa Feijoo intsumisoa

Elgoibarko Talde Antimilitaristak 14 puntutako idatzi bat bidali die ordezkari-tza duten alderdiei, Rafa Feijoo intsumisoaren egoerarekiko elkartasuna eskatuz. 14 puntuz osatutako idatziaren aldeko sinadura eskatu eta ez-ohizko batzarrean idatzia eztabaibatzea eskatzen die Talde Antimilitaristak. Rafael Feijoo Gutierrez, gazte elgoibartarra, martxoaren 16an Valentziako Zigor Epategiak soldaduzka egin nahi ez izateagatik epaituko du. Hori dela eta, Elgoibarko Talde Antimilitaristak epai ketaren, abokatuaren eta Valentziara bidaiaren gastuak bere gain hartuzan eskatu dio Udalari. Honez gain, alderdi bakoitzeko zinegotzi bakoitzari Rafaren erabakiaren alde, hau da, soldaduzkari uko egitearen alde ager daitezela eskatu die. Baita, Ordezko Zerbitzu Soziala eta Kontzientzi Eragozpenaren Legearen desagertzea eta Talde Antimilitaristarekiko jarrera, ezezkorra aldatzea ere.

elgoiBARREN astekaria lekuz aldatu da

elgoiBARREN astekaria osatzen dugunok helbide eta telefono zenbaki berria dugula jakinarazi nahi dizuegu irakurle zareten guztioi. Orain Odol Emaileen lokala zenean aurkituko gaituzue (Kultur Etxearen alboan). Helbidea: Nafarroa Plaza z/g. Telefonoa: 74 41 12.



Horra telefonoz egingdako itzulpen tipiko bat: Ikus dezagun nola izan zitekeen: - "Jose, que me ha dicho el jefe que hay que poner tambien en vasco. Dile a Mikel que se ponga(...). Mikel, ¿cómo se dice 'a más velocidad'? (Mikel) 'Abiada bizkorragoan'. - Bizkorra...qué?(polikiago eta bitan zatituta esaten dio hobeto uler dezan): - BIZKORRA GOAN. Gracias Mikel".

OLATZ, S.L.
SUKALDE ETA KOMUNERAKO
ALTZARIAK
Pedro M. Urruzuno, 8 Tel: 74 38 44

**JAVI ITURGINTZA BEROGAILUAK**
Ez pasatu hotzik. Deitu!
☎ **74 14 80**
Erretxindi 1-4 B

1963-64 Euskera berpiztu nahi genuen.



1987-88 Euskera indartu nahi genuen.



1993-94 Euskaldun eleanitzak nahi ditugu.






◆ Hara Zipi eta Zape anaiak. Ez dugu uste, aurpegi horiekin inongo kristalik apurtuko dutenik.



◆ Velazquez Jaunak burua altzako balu, a zen kuadroa "Las Pitxintxu" bihurtu zaio.



◆ Zilarrezko iturri hau izan zen lehen saria lortu zuena. Egun dagoena kendu eta bera jarri beharko dugu San Frantziskon.



◆ "Bakero" hauek ez zuten indioak beldurtzen lan handirik izango!



r sorpresa hartuko lukeen. "Las Meninas"



◆ Dena gorantz doangarai honetan (lana ezik, zoritxarez!), apostoluak ere gora egin dute: hamairu! Mahai gainekoarekin apenas enpatxu handirik harrapatzerik dagoen.



◆ BEEE, BEEE... hori da mingaina eta hortzak erakusteko gogoia. Egiten zuen hotzarekin, hauek izan dira listoena.



◆ Pailasoek ere ezin zuten huts egin. Barre egiteko arrazoi gehiegirik ez badago ere, egun batekoagatik dena da libre.



◆ Aitaren alkandora jantzi, aurpegia zikindu eta kalera! Aurpegia garbitzeko orduan ez da horrelako barregurarik izango.

Herri Eskola

Haur Hezkuntza eta O.H.O.



ESKEINTZA:

- ⇒ Murgiltze Plana: Eredu euskaldunak: D eta B.
- ⇒ Gela bereziak: Informatika, laborategia, ikusentzutekoa, bideoa, liburutegia, gimnasioa, plastika, heziketa berezia...
- ⇒ Ingelesa 3. mailatik aurrera.
- ⇒ Gelaz kanpoko ekitaldiak: Aterpeak, Baratzeko ingurugiro Hezkuntza zentrua, Pagoetako Parkea, bestelako irteerak...
- ⇒ Eraikuntza moderno eta leku egokian kokatuak: Jolastoki ederrak eta ongi gordeak.

ZERBITZUAK:

- ⇒ Jangela aparta: bertan prestaturiko jakiak. Subentzionatua. Menu egoki eta merkeak.
- ⇒ Dohako garraioa inguru guztietatik.
- ⇒ Pedagogi Aholkularitzategia (Eibarko P.A.T.).



Morkaikok 50. urtemuga ospatzen du aurten

Ostegun iluntzean Morkaiko Mendizale elkarteak 50. urtemugaren aurkezpena egin zuen Herriko Antzokian. Elkarteko presidentek, Andoni Goikoleak, urtean zehar burutzeko asmoa duten ekintzen berri eman zien bertara hurbildu ziren guztiei. Ondoren Pako Iriondok, Euskadiko



Mendizale Federazioaren presidentek Morkaiko elkartearen historiari buruzko hitzaldia eman zuen. Ekitaldia, mendizale elgoibartarrak Afrika, Asia eta beste herrialde batzuetako mendi gailurretara igo direneko diapositiba emanaldiarekin bukatu zen.

Martxorako antolatu dituzten mendi irteeren artean, Aralar-Amezketan trabesia eta Potes-era (Santander) astebukaerako irteera daude. Azken

hau San-Jose zubiko astebukaeran burutzeko asmoa dute. Irteeraren prezioa 10.000 pezetakoa da eta helburua Villa Pardioma, Pico del Tesorero, Orcado Rojo eta, animoen arabera, Peña Vieja-ra igotzea izango da.

Bestalde, mendi eta sky federatuen karnetak jasotzeko prest daudela jakinarazi nahi du Morkaiko elkarteak. Ordutegia 7 t'erdietatik 8 t'erdietara, asteazken eta ostiraletan izango da.

Martxoaren 31ean pasako da KORRIKA Elgoibartik

KORRIKAren 8. edizioaren aurkezpena eta berari laguntza emateko moduen azalpena egin zuen ostegun iluntzean Elgoibarko AEK euskaltegiak.

Aurtengo KORRIKA martxoaren 26tik apirilaren 4era bitarteko egunean izango da eta bederatziregunez, gau eta egun 2.100 kilometroko ibilbidea beteko du, Euskal Herri osoan euskararen mezua zabalduz.

Iruñean hasi eta Bilbon bukatuko den KORRIKA martxoaren 31an gure herritik pasatuko da gaueko 10etan.



EHUN KILOren maketa 5garren Devorameko ranking-ean

Ehun kilo musika taldearen maketa, Euskal Herriko 5. onena aukeratu dute Diario Vasco egunkariko *Devorame* musika ataleko irakurleek.

1992ko otsailean grabatu zuten maketa IZ estudioetan eta Deba bailaran 1.000 ale banatu dituzte dagoeneko.

Heavy metal musika egiten duen talde hau duela urte t'erdia sortu zen. Urtea bukatu aurretik diskoa grabatuko dutela aurreratu digute.

ZALDUA
ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

Kide
ileapaindegia

☎ 74 00 69

San Frantzisko, 40-1 ezk.

Fotero

OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

PUB

LA TANTE

elgoibar

Ingelesen lasaitasuna eta euskaldunen txikiteoa atsegin ditut.

Londresen jaio zen. Ama euskalduna du eta aita ingelesa. Zazpi urte zituenean Bergarara joan ziren bizitzera. Beranduxeago Ingalaterrara itzuli

zen ikasketak bertan burutu eta, 1985ean, Bergarara bueltatu arte. Gaur egun Kensington Hizkuntz Akademiako zuzendaria da Elgoibarren.

-Zer zara, euskalduna ala ingelesa?

- Denbora asko daramat dagoeneko Euskal Herrian. Euskalduna naitzela esango nuke.


-Zure ama euskalduna da, euskara badaki. Inoiz euskaraz hitzegin al da zeure etxean?

- Bai, eta oso istorio bixia da gainera. Ni jaio eta berehala, nire aita bederatzi hilabetez etxetik kanpo egon zen lana zela eta. Garai hartan, Ingalaterran bizi ginen arren, amak euskaraz soilik hitzegiten zigun. Aita itzuli zenean nik, noski, ez nuen ezagutzen. Bel-durtuta edo amarengana jo eta negarrez, zera galdetu nion euskaraz: 'ama, nor da gizon hori?'

Gero, aitaren eraginez, ingelesa bakarrik erabiltzen genuen etxean. Gaur egun uler dezaket, hitzegin apenas esaldi bakar batzu, ea barnetegi batean apuntatzen naizen!

-Ba al dugu antzekotasunik ingeles eta euskaldunok?

- Bueno, berez Ingalaterra eta Euskal Herriak, Gipuzkoak konkretuki, izan zituzten harremanak XVII. mendean. Halere, kultura eta izaera erabat ezberdinak dira, aurkakak esango nuke. Haiek



"Aita lehen aldiz ikusi nuenean amarengana joan eta negarrez galdetun: nor da gizon hori?"

eta hauek izan dezaketen planteiamendu politiko eta ideologikoak, adibidez, zeharo ezberdinak dira.

-Ezagutzen al du ingelesak Euskal Herria?

-Ezagun egiten zaie beraiengana heltzen den biolentziaren inguruko zurrumurrua dela eta. Baina ez dut uste Euskadi denaren kontzientzia dutenik, ez eta interesatzen zaienik ere.

-Zer da umore ingelesa?

- Oso berezia da eta zaila azaltzeko. Adibide bat

jarriko dut: demagun gizon bat bandeja bat eramaten ari dela platerrez gainezka. Espainiarrek duten umorearen arabera, bapatean eroriko balitz, demaseko iskanbila sortuko litzateke, zarata, algarak, oihaak. Ingelesen arabera, ordea, egoera berdinean ixiltasuna nabarmenduko litzateke eta erori den gizonaren harridura aurpegia. Ingelesen umorea ez da espainiarrena bezain nabaria, implizituagoa da. Dena dela, jaiotzaz daramaten

barne-barneko umorea da.

-Ingelesa irakastea gustatzen al zaizu?

- Asko, benetan. Doan ere irakatsiko nuke. Hizkuntza oro, soziolinguistika, lexikoa... mundu hori biziki atsegin dut. Ezerezetik hasi den pertsona bati hizkuntza bat irakasteak erabat betetzen nau. Horregatik aberasgarriagoa da hurrei eta maila baxuetan daudenei irakastea. Haurrak sei urte dituzten arte esponjak direlako, dena xurgatzen dute. Maila baxuetan, berriz, emaitza, bila-kaera nabariagoa da.

-Ze aukeratuko zenuke ingelesen kulturatik eta zein da gehien atsegin duzun euskal ohitura?

-Ingelesen esaera zahar batek, hala dio: nire etxea, nire gaztelua. Beraiek etxean lasai lasai igarotzen dituzten mementuak gustatzen zaizkit, edota taberna batetara sartzean norbaitekin komunikatzeko altu hitzegin beharrik ez izatea. Euskal Herritik kontrako. Txikiteoa bai eta kalean, jende artean inon baino hobeto pasatzeko euskaldunek duten gaitasuna.

Jasone Osoro

Andoni Larreategi

Artegi dendakoa

- Noiz hasi zinen lan honetan?
- Uste dot, orain dela 12 edo 13 urte aitari laguntzen.
- Dituzuen produktuetatik, zertaz ulertzen duzu gehien?
- Bideo-kamarak asko gustatzen zaizkit eta horri buruz beti zerbaiz gehiago.
- Zer saltzen da gehien?**- Denboradak egoten dia, baina urtean zehar aparatu estableena telebista da.
- Noiz zabalduko duzue denda berria?**- Ba, Jangoikoak nahi badu, datorren hileko 22an.
- Aldaketaren bat egingo al duzue?**- Behar den moduko esposizio bat edukiko dogu, esposizio eder bat, besterik ez.
- Zer erabiltzen duzu gehien musika entzuteko: diska, zinta ala konpaktoa?**- Konpaktoa.
- Klasiko ala modernoa?**- Dena.
- Dutxan abesten al duzu?**- Ez, ez... goizean dutxatzen naiz eta presaka ibiltzen naiz.
- Non gustatuko litzaizuke bizitzea?**- Elgoibarren.
- Zure denbora librean zer duzu gogokoen?**- Gauza asko, alabarekin jolastu, motorrean ibili...
- Bideoa ala zinema?**- Zinema, ahal baldin bada zinema, noski.
- Gustatu zaizun pelikula bat?**- "instinto basico".
- Zer gorrotatzen duzu gauza guztien gainetik?**- Gauza asko. Orokorki, "la incomprension" eta "el abuso de poder".
- Sukaldean ibiltzea gustatzen al zaizu?**- Ez, oso patosoa naiz, dena apurtzen dut. Batere ez.
- Nora gustatuko litzaizuke bidaiatzea?**- Ipar Polora.
- Eta norekin?**- Nere andrearekin.
- Kotxea ala motorra?**- Bixak, jaietan ibiltzeko motua, eta lanerako beharrezkoa da kotxea.
- Noiz jubilatatu behar da "Xey"?**- Xey-k 13 urte dauzka eta oraintxe hasi da zahartzen, derrepente, baina oraindik iraungo du, espero dugu behintzat.



Belen Arrizabalaga

BERTSOTAN


LOPEZ AIAIAK BADOA

Doniua: Salvatoreko ermitan

Lopez anaiak badoaz eta bertsotan behar dut hasi nire ustetan agur bero bat merituz dute irabazi haurrak ginela egin genituen askotan amorrarazi horren ordainez berauentzako bi bertso ditut idatzi

Zuzen eta fin erman dute urtetan "txiringittoa" beti lanean ta pentsa dute badaukatela nahikoa gaurtik aurrera kantabri aldean dute beraien txkoa gustora gastatu ezazue urtetan bildutakoa

Aitzol Arriola



ASGI

taberna

Urasandi 1,2.zbk.
tel: 74 28 38

IDO'S



Edergintza

☎ 74 34 40
Eskubideen plaza 1 6

UDA BERRI

ELGOIBAR

rambarri

ASEGURUAK

San Bartolome 15
Tel. 74 3037

Hasi da Deba Arroko 46. Esku Pilota Txapelketa

Elgoibarko Esku Pilota Lagunak antolatuta eta Kutxa eta Elgoibarko Udalaren babesaz Deba Arroko Esku Pilota Txapelketaren lehen partiduak jokatuko dira gaur gauean. Deba behea eta garaiko zazpi herritako pilotazaleek hartuko dute parte txapelketan, hala nola, Eskoriatza, Elgoibar, Plaentzi, Elgeta, Aretxabaleta, Bergara, Arrasate, Ermua eta Oñatikoek.

Pasa den urtean Ermuko Totorika eta Gallastegi bikotearentzat izan zen garaipena eta Elgetako Oskarbi Taldeko Ubera eta Pradera bikotea bigarren gelditu zen.

Gaur gauean Ikastolako Frontoian kategoria bakoitzeko partidu bana jokatuko da Elgoibar eta Plaentziko jokalarien artean. Infantiletan, Txurruka eta Balzola elgoibartarrek Laskurain eta Garziaren aurka jokatuko dute. Jubeniletan, Calles eta Aldazabalek Muguruza eta Unamunoren aurka eta seniorretan, Ansola eta Alzibarrek Orbea II eta Narbaizaren kontra.

Txapelketaren finalerdiak maiatzaren 16 eta 23an jokatuko dira eta finala, berriz, ekainaren 5ean izango da.

Erredakzioaren oharra:

Duela bi aste Manu Moraren elkarriketan egin genuen akatsa zuzendu nahi dugu lerro hauen bidez. Manu Morak ez zuen elkarriketan "pijo" hitza behin ere aipatu. Beraz, bere ahotan jarri genuen "pijo" hitza ezda berak esandakoa.



Urko Lizarralde:

"Rugbya ez da arriskutsua"

-Noiz eta zergatik hasi zinen rugbyan jokatzen? -Orain dela urte t'erdi edo hasi nintzen. Eibarrren rugby ekipo bat zegoela entzun genuen eta hara joan eta apuntatu egin ginen. Futbola eta horrelako kirolak entzunegiak zeuden. Rugbyan gainera, edonork joka dezake.

-Zein taldetan jokatzen duzu?


-Eibar Euki Rugby taldean jokatzen dut. Orain arte kadetetan eta, aurten, federatu mailan. Orain liga askozaz gogorragoa da kategoria ere altuagoa delako. Kadetetan, Gipuzkoako txapeldun izan ginen. Orain liga berrian jokatzen hasi gara eta partidu bat galdu eta beste bat irabazi egin dugu.

-Eta gustora al zabiltza? -Bai, oso gustora. Gure entrenatzailea, Iñaki Ugarteburu, Espainiako selekzioan egon zen eta oso ona da. Aurten igual Sevillara eramango gaitu jokatzerara.

-Zein postu betetzen duzu eki-poan? -Nik hegalean jokatzen dut. Nire postua betetzeko, garrantzitsuena bizkorra izatea da.

-Lesioak beste kiroletan baino gogorragoak izaten al dira?

-Ez. Gogoz entrenatzen baduzu eta sendo egonda, ez. Beste edozein kiroletan rugbyan adinako arriskua dago.



-Zergatik ez dago Rugby talderik Elgoibarren?

-Hori da nik galdetzen dudana! Federatuta bost elgoibartar gaude eta Elgoibarren ekipo bat egin daitekela uste dut. Txikitatik umeari Rugbyan jokatzen erakutsi behar zaio eta gurasoek ez lukete horrelako beldurrik izan behar. Rugbyak kirol arriskutsua izatearen fama dauke, baina fama besterik ez da.

-Zein helburu duzu Rugbyan? -Nagusiki egiten naizenean, jokatzen jarraitu. Besterik ez.

-Eta bizitzan? -Lan egin, ezkondu, seme bat... Jende guztiak egiten duena. Lan egin. Kamionero izanda konformatzen naiz.

- Adina: 17
- Rugbyan gustokoena: ondo pasatzea
- Gutxien gustatzen zaizuna: min hartzea
- Beste kirolirik: Saski baloia
- Zer zor diozu Rugbyari: Forma fisikoa
- Eta zer kentzen dizu: astixa.

CAFE
Puff
TEATRO

Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

TINDATEGIA

ARKUPE

Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91

Autoedizio eta Diseinu Grafikoa

Zubiaurre

Sta.Klara 40-3. Tel: 744444.



URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



Anjel Luis Bermudezek 26 urte ditu. A.R. Egaña taldean jokatzeko eta dagoeneko Elgoibarko Futbito Txapelketako golegile onena da hogei golekin. Zortzi edo hamar urtez ari da Futbito Txapelketan eta beti jende berdinarekin jokatu du, taldearen izena aldatu bada ere. Hau ez da golegile onena izan den lehen aldia. Behin, golegile eta jokalaririk onenaren saria eman zioten eta bere helburua aurten ere golegile hobereana izatea da. Lesionatua dagoela esan digu eta horregatik zaila iruditzen zaio aurten ere titulua lortzea. Lehenago ere aritu da futboleko baina futbito eta futbola zeharo ezberdinak direla adierazi digu.

SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA

A Taldea	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1. A. R. EGAÑA	8	6	2	0	14
2. KOSAKOS	9	6	2	1	14
3. URASANDI	7	7	0	0	14
4. TXIRRISTAKA	8	6	0	2	12
5. KARKIS	9	3	4	2	10
6. RUA	8	5	0	3	10
7. ARROAK	9	3	2	4	8
8. BAR CASERIO	8	3	2	3	8
9. KING-KONG	9	2	3	4	7
10. GORRIBELTZ	9	3	0	6	6
11. AMISTAD	9	3	0	6	6
12. LA PERLA	9	2	0	7	4
13. TXINTXIMINAK	9	1	2	6	4
14. XIRULA	9	1	1	7	3

B Taldea	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1. PEDRUSKO	9	9	0	0	18
2. AMETSA	9	7	1	1	15
3. GAR. GARCIA	9	6	1	2	13
4. MIMOX	9	5	0	4	10
5. LAGUN TOKI	9	5	0	4	10
6. ARE	9	4	1	4	9
7. TXURI URDIN	9	4	1	4	9
8. FONT. JOSERRA	9	4	0	5	8
9. M.R.W.	9	2	4	3	8
10. UNIV. DE CHILE	9	3	2	4	8
11. LANBROA	9	2	3	4	7
12. GAZTEAK	9	2	2	5	6
13. BERROGEI DURO	9	1	1	7	3
14. SPORTING	9	1	0	8	2

TALDE GOLEGILEENA

PEDRUSKO36 gol
 A.R. EGAÑA36 gol
 GARAJES GARCIA35 gol

GOLEGILE ONENA

Bermudez (A.R. EGAÑA)20 gol
 J. Romero (GARAJES GARCIA)20 gol



GOL GUTXIEN JASO DUEN TALDEA

URASANDI6 gol
 PEDRUSKO8 gol
 GARAJES GARCIA10 gol
 KOSAKOS10 gol
 A.R. EGAÑA11 gol



Herri-Gain izan zen Urasandiko jaien bultzatzailea

Julio Bueno eta beste batzuk izan ziren Elkarte sortzeko ideia izan zutenak eta lagunak eta ezagunak bildu ondoren, 28 bazkide batu zituzten. Orain 30 bazkide dira eta kopurua zabaltzeko asmorik ez dute lokalaren tamaina murrizgatik. Halere, 50 pertsonentzako tokia dago Herri-Gainen.



↳ Urasandiko jaietan, sokatiran parte hartu zutenetarikoz batzu.

Herri-Gainekoak harro daude Urasandiko jaiak hiru urtez antolatu izateaz. 1981. urtean egin ziren lehen-dabizikoz Urasandiko jaiak, eta 1983. urterako utzi egin behar izan zuten horrelako jaiak antolatzea, eskatzen zuen esfortzu eta lan izugarriagatik. Ezin daiteke aipatu gabe utzi, Urasandiko jaietan bota zirela lehen-dabizikoz suzko erroberak, hogeita zortzi urtez

bota gabe egon ondoren, Uztaileko lehen asteburkaeran ospatzen ziren jaiak, eta azken urtean, auzoan dauden beste hiru elkarteei luzatu zieten jaiak antolatzeko gonbitea. Baina gainontzeko elkarteek ez zuten konpromezurik hartu nahi izan arlo horretan eta 1983. urtean azkenekoz ospatu ziren jaiak. Lanaz gain, milioi t'erdiko aurrekontuari aurre egin behar izaten zioten. Hala

ere, auzokideen eskuzabaltasuna ez dute ahaztu Herri-Gainekoek. Familia bakoitzak 200 pezeta-tako diru-saria ematen zuen batazbeste eta horrekin, errifekin eta jaiak irauten zuten bitartean montatzen zuten tabernarekin parra gelditzea lortzen zuten. Gainera, adinean ere aurrera doazela eta lan hori gazteek bizkarreratu beharko luketela esaten dute.

Elkartearen gainean, biltegirako erabiltzen duten beste lokal bat dute. Batzuk jokuak jartzearen aldekoak dira, baina oraingoz ez dute, gai honi dagokionean behintzat, adostasunik lortu.

Emakumeak onartzeak lege aldaketa ekarriko lukeela esaten dute, eta gainera beraien emakumeak oso kontentu omen daude sukaldean sartu ezin izateagatik, dena eginda ematen zaielako edo.

Mus txapelketa urrian edo beranduenez azaroan antolatzen dute. Auzokide guztiak gonbidatzen dituzte txapelketara eta lehenago "ligilla" bat egin zuten arren, orain "mus relanpago" deritzona antolatzen dute, dirudienez parte hartzaileen asperrak eraginda.

Ardi gisatua:

Osgaiak:

Ardi okela, piper berdea, azenarioa, ilarrak, tomatea, txanpiak eta olio.

Nola egin:

Ardi okela oliotan ondo gorritu ondoren koipea kendu ardiak zapore

gogorra izan ez dezan. Kazuela batean, aurretik txikitutako berdurak ondo egin. Berdurak eginda daudenean ardia bertara bota. Berdurak txinoan pasa daitezke, edo bestela txiki-txiki eginda utzi. Ardia sutan sendo eduki, ondo bigundu arte.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1981

Presidentea:

Jeronimo Valero

Bazkide kopurua: 30

Berezitasuna:

Mus txapelketa

Urteko kuota:


14.4000

Helbidea:

Urasandi kalea, 49

Sallobente ermitako lanak geldituta daude momentuz

Sallobenteko ermitako berritzelanak geldituta daude momentuz, sakristiara sartzeko dagoen atearekin zer egin, erabaki gabe baitago. Ate inguruan Erdi Aroko leiho bat aurkitu zuten eta, hori konpondu ahal izateko beharrezkoa da sakristiara ematen duen atea kentzea.



↳ Erdi aroko pinturak ermitan bertan konpondu behar dituzte.

Sallobenteko ermitan, Gipuzkoako Erdi Aroko horma-pinturarik zaharrenak aurkitu zituzten duela hiru urte. Ermitaren berritze lanetan zihardutela, pareteko igeltsua altxatu eta azpian garai ezberdinetako pinturak zeudela konturatu ziren.

Pinturen berritze lanen azken ikutuak besterik falta ez direnean, errestiturazio taldeak ezin du zehaztu zein mendetakoak diren, konkretuki, aurkitu diren azken pinturak. Margoen berritze lanen ardura Artelekuk hartu

zuen bere gain, Eudal Gillamet-en, Andorrako Errestiturazio Taldearen buruaren zuzendaritzapean.

Absidearen pareko tauletan agertzen diren marrazkiak geometrikoak eta loredunak dira eta, oso xinpleak gainera

Pintura barrokoak eta errenazimendu garaikoak Artelekura eraman, eta

errestauratu dituzte. Erdi Aroko pinturak paretean bertan ari dira berritzen, oso egoera txarrean baitzeuden. Artelekura eramanako pinturak konpondu eta gero, atzera ekarriko dituzte Sallobentera, ermitak hiru garai hauetan izandako dekorazio ezberdinak ikusi ahal izateko.

Sallobenteko pinturak Gipuzkoako pinturarik zaharrenetakoak dira, kobazuloetakoak kenduta, noski. Artelekukoek oraindik ez dute zehaztu XIV, XIII.mendekoak ala

zaharragoak diren.

Erdi aroko pinturak zeuden paretean, hauek baino piska bat goraxeago, beste margo batzuren arrastoak agertu dira. Gizairudiak dira. Artelekuko errestiturazio taldeko kide batek esan digunez, pintura horretan Kristo berpiztua eta hamabi apostoluak daudela dirudi. Dena dela, ez dira ausartu gaineko igeltsua altxatzen, pintura oso mehea da eta. Teknika egokia aurkitu artean, dagoen bezala utziko dute horma pusketan hori.

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

GRANDAL

OIHALA

eta

MERZERIA

Errosario 8. Tel:74 35 95

TELEFAX PUBLIKOA
FOTOKOPIAK
ESKOLARAKO MATERIALEA

GOXDEN

PAPERDENDA

Pablo Irureta

San Franzisko 52. Tel:74 02 40

27 *Larunbata*

16,15 FUTBOLA

Elgoibar-Alaves. Lerunen.

19,30 ZINEA

"Indochina"

Zuzendaria: Regis Wargnier

Aktoreak: Catherine Deneuve,
Vincent Perez, Linch Dan
Pham.

Z I N E A

"Indochina"

Indochina filmeak, printzesa bat alderdi komunistaren dirigente bihurtzen deneko historia kontatzen digu.

Kautxo negozio gizon baten alargunak printzesa, ume bat besterik ez denean, adoptatu egiten du. Ama eta alaba itsasarmadako ofizial berberaz maitemintzen dira. Pelikularen ardatza, gazte bikotearen abentura sentimental eta politikoa da.

Z I N E A

28 *Igandea*

13,00 KONTZERTUA

"Txistulari Udal Taldea"

Tokia: Plazako arkupeetan

16,30 ZINEA

"Freejack"

19,30 ZINEA

"Indochina"

1 *Astelehena*

19,30 ZINEA

"Indochina"

4 *Osteguna*

20,00 ANTZERKIA

"Todas tenemos la misma historia" GASTEIZ taldearena.

Tokia: Herriko Antzokia

5 *Ostirala*

20,00 HITZALDIA

Gaia: Emakumea eta lana

Hizlaria: Marivi Marañon

Tokia: Kultur Etxea



HARPIDETZA TXARTELA

elgoi**BARREN** herri astekaria, **DOHAINIK** , astero buzoian jaso nahi baduzu bete harpidedun txartela eta elgoi**BARREN**era bidali edo deitu telefonoz.

IZENA:.....

ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

HERRIA:.....

TEL:.....

elgoi**BARREN** astekaria, Ubitarte 4 behea.(20.870) Elgoibar
TEL: 74 16 26

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 27, larunbata: ORMAZABAL
- 28, Igandea: ORMAZABAL
- 1, Astelehena: ETXEBERRIA
- 2, Asteartea: ETXEBERRIA
- 3, asteazkena: ETXEBERRIA
- 4, osteguna: ETXEBERRIA
- 5, ostirala: ETXEBERRIA

OKINDEGIAK:

- 28, igandea: BOUTIQUE DEL PAN



Etxebizitzak

Lokal edo gela baten bila nabil, artisau lantegi bezala erabiltzeko.
Deitu: 74 27 12 . Trini

Lana

Ingeniero indtrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

Salerosketak

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.
Tel: 945-28 94 81
Deitu 8etatik aurrera.

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako moto-rra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)

Galdutakoak

Udaltzaingoak egun haue-
tan jasotako gauzak: Urrez-
ko eskumuturreko bat,
eguzkitako betaurrekoak,
emakumezkoen diru poltsa,
giltzak.

Aste bukaeratan lan egite-
ko ileapaintzaile edo **pelu-
kera bat behar dut.**
**Tel: 75 51 01. Lan ordue-
tan deitu.**

BUTANOZKO SUKAL-
DEA salgai. 3 su eta labea.
Horrekin batera, zenbait
altzari osagarri oparituko
genuke: aulkia, apala,
etab...
Gauzez: 74 14 25

Organu HAMOND bat. 8
baxu, bi teklatu eta sekzio
ritmikoduna. 50.000 pzta.
Alberto: 74 14 94

Nintendo Kontsola bat sal-
tzen dut. AUKERA!!
Tel: 74 23 27

Duela hilabete Samsung
AF-200 kamara automati-
koa galdu nuen Madarixa
inguruan.
**Inork aurkitu izan balu,
deitu mesedez 74 02 09**

Tituludun irakasleak
**O.H.O.ko klase partiku-
larrak** ematen ditu.
Alazne Tel.:74 28 53

Gimnasia egiteko tresna
saltzen dut. Muskuloak eta
hankak indartzeko oso ego-
kia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 23 27 Egun osoz.

Kontaktuak

Musika egiten duen lagun
talde bat gara. Lokalen bat
alokatu nahi genuke en-
tsaiuak egiteko. Alokatze-
ko moduan **lokalik baldin
baduzu deitu 74 33 66**
telefonora eta Josurenga-
tik galdetu.

EZ DITUZU LEIHOAK ALDATU BEHAR

LEIHOETAKO ZIRRIKITUETATIK:

- HOTZA
- HAIZEA
- HAUTSA
- ZARATA
- POLENA

SARTZEN BAZAIZU...



Altzairu inoxidablezko burleteak betirako dituzue.

- Edozein leihotarako
- Instalazio azkarra
- 4-6 gradu gehiago, etxe barruan.

OBRARIK GABE

glas control


Ubitarte 7. ELGOIBAR

ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE



74 30 94 - 74 43 54



G  **LF berria:** Kotxe honetaz asko idatzi da.

Autorik Seguruena

Urteko autoa Europan

Zatoz eta GOLF batekin irtengo zara.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR